

d) Prestakuntza-ebaluazioa egiteko eta irakaskuntza-plangintza eta -praktika doitzeko aurreikuspenak egitea

1. maila: Oinarrizkoa

2. maila: Garatze bidean

3. maila: Garatua

4. maila: Aurreratua

Ez da aurreikusten unitate didaktiko bakoitzaren hasieran ikasleen hasierako ebaluazioa egiteko unerik.

Ikasleen ebaluazioa eduki deklaratioetan baino ez da zentratzen.

Ikasleen ebaluazioan eragina izango duten lanen, proben eta ariketen zuzenketak kalifikazio kualitatibo edo kuantitatiboa du, baina ez du adierazten zein diren egindako akatsak edo zergatik jarri den kalifikazio hori.

Irakaskuntza-plangintzan ez da aipatzen edo aurreikusten programazioaren beraren ebaluazioa egiteko unerik.

Ikasleen hasierako ebaluazioa egitea aurreikusita dago unitate didaktiko bakoitzaren hasieran, aurretiazko ezagutzak eta ikaskuntza berriak egiteko balizko zailtasunak identifikatze aldera.

Ikasleen ebaluazioa batez ere eduki deklaratioetan oinarritzen da, prozedurei eta jarrerari buruzko informazioa ere jasotzen duen arren.

Ebaluazioa oharren edo probetako kalifikazioen erregistroen metaketa hutsa da.

Programazioak ebaluatzeak uneak aurreikusten dira, baina ikasleen kalifikazioak dituzte ardatz eta ez da beste ebidentzia- edo informazio-iturririk planteatzen.

Eduki deklaratioez gain, trebeziak edo prozedurak eta jarrerak eta zeharkako konpetentziak ebaluatzea aurreikusten du.

Informazioa askotariko ebidentzia-iturrien bidez jasotzea aurreikusten du (behaketa, ahozko eta idatzizko proben emaitzak, banakako lanak, taldeko lanak, aurkezpenak, ikerketa, etab.).

Ebaluazio indibiduala eta garapen hurbileko eremuarekin bat datozen erroka pertsonalizatuak transmititzeko uneak aurreikusten ditu.

Programazioaren ebaluazioak ikasleen kalifikazioez gain, baliabideen erabileraren eta ikasgelan erabilitako metodologiaren eraginkortasunaren analisia aurreikusten ditu.

Xehe-xehe deskribatzen du hasierako ebaluazioa, etengabeko ebaluazioa, askotariko ebidentzia-iturrien erabilera, eduki mota ezberdinei egokitutako ebaluazio-teknikak eta banakako ebaluazioa egiteko estrategiak. Ikasleen emaitzak eta emaitza horiek lortzeko prozesua ebaluatzen dira.

Autoebaluaziorako, berdinen arteko binakako ebaluaziorako, taldeko ebaluaziorako... proposamenak jasotzen ditu. Ebaluazio-prozesu ororen ostean ikasle bakoitzaren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren aurrerabidearekin jarraitzen lagunduko duten orientazioak egingo direla ezartzen du.

Zikloko edo saileko hainbat saio erreserbatzen ditu programazioak ebaluatzeako.

Talde edo klase bakoitzaren adierazleez gain, aintzat hartzen ditu beste ebidentzia-iturri batzuk: ebaluazio diagnostikoa, kanpoko probak (PISA, TIMMS, PIRLS...)

Irakasleak ekarpen esanguratsuak egiten ditu ikastetxeko planifikazio- eta ebaluazio-tresnetan.